PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA
LOIOLAKO HUA-N SORTUTAKO LOHIA BESTERENTZEKO ETA GERO KUDEATZEKO LIZITAZIOA ARAUTZEN DUENA

Donostia, 2021eko maiatzaren 7a

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA
LOIOLAKO HUA-N SORTUTAKO LOHIA BESTERENTZEKO ETA GERO KUDEATZEKO LIZITAZIOA ARAUTZEN DUENA

Aurkibidea

Or. zk.

1 Kontratazioaren objektu den zerbitzuaren definizioa 1
2 Definizioak 1
3 Lohien ekoizpena 1
4 Arazketako lohien kalitatea 1
5 Aplikatzekoa den legeria teknikoa 2
6 Lanen garapena 3
7 Lohien ezaugarriak 3
8 Lohiak erretiratzea 3
8.1 Zerbitzuaren ordutegia 5
8.2 Instalazioetarako sarbidea 5
8.3 Garraioa, kamioia kargatzea eta pisatze-kontrola 5
8.3.1 Garraioa 6
8.4 Azken erabilera 7
8.4.1 Beste hondakin-kudeatzaile baten bitartez kudeatzea 7
8.4.2 Lohiak nekazaritza-lurretan aplikatzea 8
8.4.3 Ongarri baten oinarri gisa baliaraztea 9
8.4.4 Lohi lehorra biltegiratzeko gomendioak 10
9 Egindako zerbitzuak AUSAk kontrolatzea 10
10 Ingurumen-alderdiak 11
11 Segurtasunari eta osasunari buruzko araudia betetzea 12
11.1 Betetzearen erantzukizuna 12
11.2 Koordinazioa 12
11.3 Segurtasun- eta osasun-ekipamenduak 13
11.4 Lan-istripuetako erantzukizuna 13
11.5 Azterketa medikoak eta txertaketak 13
11.6 Laneko arriskuen prebentziorako plana 13
11.7 Prestakuntza-plana 13
11.8 Uniformetasuna 14
11.9 Seinaleak 14

1. eranskina
2. eranskina

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, LOIOLAKO HUA-N SORTUTAKO LOHIA BESTERENTZEKO ETA GERO KUDEATZEKO LIZITAZIOA ARAUTZEN DUENA

1 Kontratazioaren objektu den zerbitzuaren definizioa

Agiri honen objektua da Loiolako HUAn sortzen diren termikoki lehortutako lohiak (lohi lehorrak) eta lohi deshidratatuak (lohi hezeak) kudeatzeko kontratua arautuko duten oinarri teknikoak definitzea.

2 Definizioak

Agiri honen ondorioetarako, honako produktu hauek hartuko dira kontuan:

- Termikoki lehortutako lohiak (lohi lehorrak): termikoki lehortutako lohitzat hartzen dira, digestio- eta deshidratazio-prozesuen ondoren, lehortze termikoko prozesu baten bidez hezetasuna murrizteko prozesua jasan dutenak. Horri dagokionez, adierazi beharra dago lehortze-prozesuaren ondorengo hezetasun-ehuneko zenbatetsia % 8 - % 10 ingurukoa dela.

- Lohi deshidratatuak (lohi hezeak): lohi deshidratatutzat hartzen dira, digestio-prozesuaren ondoren, zentrifugazio-prozesu fisiko baten bidez deshidratatzeko prozesu baten bidez hezetasuna murrizteko prozesua jasan dutenak. Horri dagokionez, adierazi beharra dago prozesuaren ondorengo hezetasun-ehuneko zenbatetsia % 78 ingurukoa dela.

3 Lohien ekoizpena

Loiolako HUAko lohiak Hondakinen Europako Zerrendako HEZ 190805 kodea duten hondakinak dira, behar bezala egonkortuak eta deshidratatuak. Lohi horietan lortutako lehortasuna % 22 ingurukoa da lohi deshidratatuetan eta % 90 - % 92 ingurukoa termikoki lehortutako lohietan, eta, hortaz, palakatze bidez manipula daitezke. Jatorrizko dentsitatea gutxi gorabehera 820 kg/m^3-tan finkatzen da batez beste, lohiek duten hezetasun-mailaren arabera.

1. eranskinean jaso dira 2011-2020 aldian sortutako lohien kantitateak.

4 Arazketako lohien kalitatea

Lohiei eman dakiekeen azken erabileraren arabera (eta, gainera, kudeatzaile baimendu baten bitartez kudeatzeko aukera ezertan galarazi gabe), honelakoak izan daitezke:

- Ongarri baten oinarri gisa baliaraz daitezkeenak: indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko da. Estatu-mailako erreferentzia Ongarriei buruzko ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretua izango da.

- Nekazaritzan erabil daitezkeenak: autonomia-erkidego bakoitzak arlo horretan ezar litzakeen mugak gorabehera, orientazio modura adierazten dira Euskal Autonomia Erkidegoan erabil daitezkeenak, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-lurretan lohiak erabiltzeari buruzko azaroaren 26ko 453/2013 Dekretuan ezarritako metalen muga-balioak gainditzen ez dituztenak. Estatu-mailan, bestalde, nekazaritza-sektorean arazketako lohiak erabiltzea arautzen duen urriaren 29ko 1310/1990 Errege Dekretuan ezarritakoa beteko da.

- Nekazaritzan erabili ezin direnak: arestian aipatutako mugak gainditzen dituztenak.

  Lohia nekazaritzan erabiltzeko egokia den zehazteko, 453/2013 Dekretuak eta 1310/1990 Errege Dekretuak ezartzen dute nahitaezkoa dela sorta homogeneo bakoitzaren arabera tratatutako lohiak analizatzea (hileko ekoizpena hartuko da halakotzat). Analisi hori, nolanahi ere, kontratistaren kontura egingo da, eta berak egingo du, hilean behin, “aplikatutako lohien ezaugarriak” izeneko dokumentua, indarreko legerian ezarritakoari jarraikiz.

5 Aplikatzekoa den legeria teknikoa

Kontratuaren lizitazioaren unean indarrean dagoen lohien edo hondakinen kudeaketaren arloan aplikatzekoa den Espainiako legeriari edo, hala badagokio, kontratua indarrean dagoen bitartean izan daitezkeen haren aldaketei jarraikiz emango da zerbitzua.

Gainera, lohiaren xedearen objektu den jarduera finkatuta dagoen autonomia-erkidegoan indarrean dagoen legeria ere bete beharko da.

Aplikatzekoa den legeria —azalpen modura eta mugatzeko asmorik gabe zerrendatua— honako hau da:

- 1310/1990 Errege Dekretua, urriaren 29koa, nekazaritza-sektorean arazketako lohiak erabiltzea arautzen duena.
- AAA/1072/2013 Agindua, ekainaren 7koa, nekazaritza-sektorean arazketako lohiak erabiltzeari buruzkoa.
- 453/2013 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-lurretan lohiak erabiltzeari buruzkoa.
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.
- 506/2013 Errege Dekretua, ekainaren 28koa, ongarriei buruzkoa.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena.

6 Lanen garapena

Adjudikaziodunak bere proposamen teknikoan ezarritakora egokitu beharko du. Edozein arrazoiren ondorioz, adjudikaziodunak kontuan hartzen badu lohiei emandako xedea aldatzea edo horiek uzten diren lekua aldatzen badu, Aguas del Añarbe - Añarbeko Urak SAk (AUSA) bere esku gordetzen du aldakuntza horiek baliozkotzat jotzeko eskubidea.

Edozein aldaketa egin aurretik, kontratistak aldaketa horren justifikazioa eta horri buruzko indarreko legeriaren araberako kudeaketa bermatzeko behar den dokumentazio guztia igorri beharko dio AUSAk izendatutako kontratuaren arduradunari. Horrek ekartzen dituen gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Zerbitzua adjudikatu eta bidezko kontratazio-tramiteak egin ondoren, adjudikazioduna lohiak kudeatzeko zerbitzua ematen hasiko da dagozkion instalazioetan.

Kontratistak horri uko egiten badio edo kontratuaren objektua betetzen ez badu, AUSAk aukera izango du hark gordailututako bermea egikaritzeko.

7 Lohien ezaugarriak

Termikoki lehortutako lohien analisia egin da —horretarako akreditatutako laborategi batean—. Agiri honen 2. eranskinean jaso da analisiaren kopia.

Balio jakin batzuen barruan, eta produktuaren xedearen aniztasuna ulertuta, produktuaren zuzeneko parametroak, mikrobiologikoak, kimikoak, nutrizio-parametroak, metal astunak eta granulometria kontuan hartu dira.

Analisi horrek, adierazgarria izan arren, ez du esan nahi produktuaren ezaugarriek beti dituztenik zehaztutakoen berdin-berdinak diren balio errepikakorrak.

Beraz, adjudikazioduna arduratuko da lohia erretiratzeaz, garraiatzeaz eta kudeatzeaz, ekoizpen-prozesutik ateratzen den edozein baldintzatan, eta, ondoren, Loiolako HUAren toberetan biltegiratzeaz; beraz, kontratistak ez du eskubiderik izango kontzeptu horren ondorioz erreklamazio ekonomikorik egiteko.

Lohiaren kalitatea edo granulometria aldatzen bada, kontratistak ez du izango inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

Lohiaren izaera aldatzen bada, partidaren batean, eta nekazaritzan erabiltzeko edo legez aurreikusitako beste edozein aplikaziotarako “gai” izatetik “ez gai” izatera igarotzen bada, adjudikaziodunak ez du izango inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

8 Lohiak erretiratzea

Lohiak erretiratzea egun dauden biltegiratze-sistemetatik (toberak, edukiontziak edo zakuak) garraiobide egokian kargatzean datza.

Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du erretiratzeko eskabide guztiei hogeita lau orduko gehieneko epean erantzuteko, salbu eta berak epe laburragoa eskaini badu.

Adjudikaziodunak AUSAk garatutako metodologia eta aplikazio informatikoak erabiliko ditu, erretiratzeen programazioa, jarraipena eta erregistroa sistematizatzeko eta automatizatzeko.

Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du AUSAk planteatutako beharrei berehala, garaiz eta behar bezala erantzuteko, bitartekorik ezaren edo lohiak kentzeko eskaera gehiegi egitearen aitzakiarik gabe, ezinbesteko kasuetan izan ezik. AUSAk eskatutako zerbitzuei ezarritako epean erantzungo zaie, nahiz eta jaiegunetan egin behar izan.

Adjudikaziodunak bere kontura egingo ditu kamioiak edo garraio-ekipamenduak kargatzeko lanak, baina betiere instalazioko operadoreek emandako zehaztapenak, jarraibideak eta gomendioak betez.

Zamalanak egin ondoren, adjudikaziodunak behar diren neurriak hartuko ditu instalazioak hasieran bezain garbi gera daitezen.

Adjudikaziodunak behar diren segurtasun- eta osasun-neurriak hartu beharko ditu bere langileentzat, zamalanak segurtasun osoz egiteko.

Adjudikaziodunak zainduko du lohiak instalazioetatik erretiratzeko eragiketan gorabeherarik gerta ez dadin eta instalazioen alderdi estetikoan, funtzionalean edo mantentze-lanetan eraginik izan ez dadin, eta instalazioetan sor daitezkeen kalteen erantzule izango da, eta agiri honetan aipatzen diren lanak behar bezala ez egitearen ondoriozko kostuak bere gain hartuko ditu.

AUSAren instalazioetan sartzen diren ibilgailu eta langile guztiek horretarako baimena izan beharko dute. Hori dela eta, lanak hasi aurretik, edo ibilgailuak edo langileak aldatzen badira, sarrera-eskabide bat igorri beharko da, langileen kasuan izen-abizenak eta NANa eta ibilgailuen kasuan matrikulak eta fitxa teknikoak adierazita.

Tramite hori betetzen ez bada, instalazioetarako sarrera ukatu ahal izango da. AUSAren instalazioetan sartzen diren langile guztiek sozietate horrek laneko segurtasun eta osasunari buruz xedatutakoa bete beharko dute.

Dagokion fakturazioa egiteko, lohia erretiratzen duten kamioiak pisatu egin beharko dira (tara eta pisu garbia) erretiratze bakoitzean, instalazioak duen baskula erabilita. Loiolako HUAko baskula erabilgarri ez badago, adjudikaziodunak Petritegiko EUTEkoa erabiliko du, eta azken hori ere erabilgarri ez badago, inguruko baskula ziurtatu bat aukeratuko du eta AUSAri jakinaraziko dizkio haren kokapena eta egindako kontrolak, sozietateak ontzat eman dezan.

Pisaldi-tiketik ez badago, AUSAk —zerbitzuari dagokion zenbatekoren bat ordaindu behar duenean— ez du ordainduko zerbitzua, justifikatutako eta aldez aurretik jakinarazitako arrazoirik izan ezean. Ez da aurreikusten kargarik gabeko bidaiarik ordaintzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

8.1 Zerbitzuaren ordutegia

Honako ordutegi honetan egin behar dira lohiak erretiratzeko lanak, bestelakorik adierazten denean edo larrialdi-kasuetan izan ezik:

- Erretiratzeak goiz eta arratsaldeko lanaldian, lanegun eta jaiegunetan.
- AUSAk jakinarazi ondoren.

Ibilgailu bat instalazio batera adierazitako baldintzetatik kanpo iristen bada, AUSAk ez du kargatuko denik bermatzen.

Ordutegiaren edozein aldaketa adjudikaziodunari jakinaraziko zaio, aldaketa horretara moldatzeko aukera izan dezan. Nolanahi ere, zerbitzuaren adjudikazioduna AUSAk zehazten duen ordutegira egokituko da.

8.2 Instalazioetarako sarbidea

Loiolako HUAk lohiak kargatzeko lanak egiteko ezaugarri eta kalitate egokiak dituzten sarbideak ditu. Eskaintzaren ondorioetarako, kontuan hartu beharko dira kontratistak erabili beharko dituen sarbide-zabalgune motak eta euriteetan izango duten eragina, kasu bakoitzerako egokienak diren kamioiak edo bitarteko osagarriak aukeratzeko. Ezin izango da irisgarritasunik ezaren aitzakia jarri zerbitzua ez egiteko, ezta kostuen ordaina eskatzeko ere.

Adjudikazioduna arduratuko da zerbitzuaren ohiko joan-etorrietan sarbideen egoera ona mantentzeaz.

8.3 Garraioa, kamioia kargatzea eta pisatze-kontrola

Lohiak, adjudikaziodunak kargatu ondoren, sortzen diren instalaziotik helmugaraino garraiatuko dira. Erabili beharreko garraiobidea lohiak behar bezala garraiatzeko eta azken erabilera-puntuetan deskargatzeko egokia izango da.

Kamioia kargatu ondoren, albaran bat beteko da, eta, bertan, honako hauek adieraziko dira: lana zein instalaziotan egiten den, kamioiaren matrikula, lohiaren pisua eta aplikatzeko lekua, eta prozesuan zehar izan daitezkeen gorabeherak edo oharrak. Albaran hori kamioi-gidariak eta arreta eman zion langileak sinatuko dute, eta, bi kasuetan, izena, identifikazio-agiria, matrikula-zenbakia eta zigilatzea adieraziko dira. Ez da onartuko informazio hori guztia jasotzen ez duen albaranik. Albaran horiek, gutxienez, hiru aletan sinatuko dira. Bat instalazioan utziko da, eta beste bat AUSAri igorri beharko zaio, AUSAren baskulak edo aldez aurretik onartutako baskula ziurtatuak jaulkitako jatorrizko pisaldiaren egiaztagiriarekin batera.

Zerbitzua hasi aurretik, adjudikaziodunak albaran-eredu bat proposatu beharko du eta AUSAk onartu egin beharko du.

Lohia AUSAren instalazioetako baskuletan pisatuko da (tara eta pisu garbia), edo, halakorik ezean, adjudikaziodunak proposatu eta AUSAk onartuko dituen baskula ziurtatuetan (kamioian bertan pisatzeko sistemak barne).

AUSAren instalazioetan baskularik ez badago edo daudenak matxuratuta badaude, adjudikaziodunak inguruko baskula ziurtatu bat proposatuko ahal izango du eta haren kokapena eta egindako kontrolak jakinaraziko ditu. Baskula hori aldaketa egin aurretik onartu beharko da.

AUSAk alde bakarretik aldatu ahal izango du pisaldia egin behar duen baskularen kokapena, eta horrek ez du kalte-ordainik ekarriko.

Oso noizean behin, aldez aurretik onetsitako pisua zenbatesteko metodoak onartu ahal izango dira. Ezinbestekoa da erretiratze bakoitzaren pisaldi-egiaztagiriak (tara eta pisu garbia) aurkeztea.

AUSAk, edonola ere eta beharrezkotzat jotzen duen guztietan, kamioia baskula ofizial batean edo egokitzat jotzen duen beste edozeinetan pisatzeko eskatu ahal izango dio adjudikaziodunari.

8.3.1 Garraioa

Garraioa indarreko legeriaren arabera egingo da.

Aukeratutako garraiobideak egokia izan beharko du lohia behar bezala garraiatzeko eta azken xedean erabilgarri dauden ekipamenduekin deskargatzeko. Gainera, biztanleguneetan zehar zirkulatzea saihestuko da, bereziki kamioia kargatuta badago.

AUSAk honako hauek eskatuko dizkio kamioi bakoitzari: atoiaren garbiketa; atoia kargatuta dagoenean olana hedatuta izatea; eta, atoiaren kaxaren estankotasuna.

Kamioiek GPSa eduki beharko dute, AUSAk beharrezkotzat jotzen badu adjudikaziodunak ibilgailu horrek egin duen ibilbidea emateko aukera izan dezan.

Kamioiek pisatze-sistema eduki beharko dute, kamioiaren karga kontrolatzeko eta legeak baimendutako pisua ez gainditzeko (2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa).

Adjudikaziodunak behar diren garraiobideak eta langileak eduki beharko ditu, bai bereak bai azpikontratatuak. Garraioa azpikontratatuz gero, modu fede-emailean jakinarazi beharko da zerbitzu hori zein enpresak egingo duten. Azpikontratatutako enpresa aldatzen bada, modu fede-emailean jakinarazi beharko zaio AUSAri.

Garraio-enpresek Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin ez-arriskutsuen garraiolarien erregistroan inskribatuta egon beharko dute, eta ibilgailuaren identifikazio-txartelean 190805 kodea edo baliokidea agertu beharko da.

Garraiolariak bere esku izan beharko du erregistro horretan inskribatu izanaren egiaztagiria, baita igarotzen duen autonomia-erkidegoan edo autonomia-erkidegoetan behar den beste edozein dokumentu ere.

Lohiaren garraioa adjudikaziodunaren kontu eta arriskura egingo da. Adjudikazioduna izango da modu egokian eta horri buruz indarrean dagoen legeriaren arabera garraiatzearen erantzule bakarra.

Garraioak irauten duen bitartean, adjudikaziodunak ezin izango dio bestelako lohi edo hondakinik gehitu AUSAren instalazioetatik datorren kargari.

8.4 Azken erabilera

Azken erabilera ekoizpen-instalaziotik datozen arazketako lohiei ematen zaien azken xedea da. Aurkeztu den eta AUSAk hasierako onarpena eman dion eskaintzan azaldutakoaren araberakoa izango da azken erabilera. Dena den, oro har hiru kudeaketa mota aintzat hartzen dira:

- Beste hondakin-kudeatzaile baten bitartez kudeatzea.
- Lohiak nekazaritza-lurretan aplikatzea.
- Ongarri baten oinarri gisa baliaraztea.

Adjudikazioduna da lohiei ematen zaien azken xedearen erantzulea. Izan ere, horri buruzko indarreko legeriaren arabera erabili beharko ditu lohiak. Konpromiso hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, horrek ekar ditzakeen zigorrak ezertan galarazi gabe.

Lohien garraioak, biltegiratzeak edo azken erabilerak eragindako edozein zehapen esleipendunaren erantzukizun osoa izango da, eta bere gain hartu beharko ditu horren ondoriozko kostu ekonomikoak eta legezkoak.

Adjudikaziodunak aurrez jakinarazi beharko dio AUSAri lohiaren xedea.

Agiri honetan aintzat hartzen diren azken erabilerarako aukerak ondoren zehaztutakoak dira.

8.4.1 Beste hondakin-kudeatzaile baten bitartez kudeatzea

Legearen eta funtzionaltasunaren ikuspegitik, hondakinen kudeaketa hondakin-kudeatzaile baten bidez egin daiteke. Hala, AUSA hondakin-kudeatzailea dela kontuan harturik, hondakinak hirugarrenek kudea ditzakete, baldin eta indarrean dagoen legeria betetzen badute; hau da, Loiolako HUAn sortutako hondakinekin bateragarriak diren hondakinak kudeatzeko baimena badute, zehatzago esanda, HEZ 190805 kodearen bidez ezaugarritutako hondakinetarako —hiriko hondakin-uren arazketako lohiak— baimena badute.

8.4.2 Lohiak nekazaritza-lurretan aplikatzea

Lohiak lurzoruaren propietate agronomikoak hobetzeko eta merkatuan dauden ongarrien edo kidekoen erabilera partzialki ordezteko erabil daitezke.

Adjudikaziodunak, edozein nekazaritza-lurretan zuzenean aplikatzen hasi baino lehen, lurzoruaren lagin bat hartu eta horren analisia egin beharko du aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera. Lurzoruetako metal astunen balioek ez dituzte gainditu beharko aplikatzekoa den araudiak ezarritako mugak. Era berean, nekazaritza-lurretan lohiak aplikatzeko eskatzen diren administrazio-baimen guztiak eduki beharko ditu adjudikaziodunak.

Ez da onartuko lohiak malda duten partzeletan deskargatzea, baldin eta, AUSAk izendatutako kontratuaren arduradunaren iritziz, lohia lerratzeko arriskua badago.

Lohiak lurrean hedatzeko eta nahasteko sistemak atoi barreiatzaile eta goldatze bidezkoak izan behar dira, lohia ahalik eta denborarik laburrenean egon dadin gainazalean, inguruko gorabehera estetikoak, usain txarrak, intsektuen ugalketa eta abar minimizatzeko. Salbuespenak salbuespen, gehienez ere hamabost egun naturalez egon daiteke lohia hedatu gabe.

Hortaz, hamabost egun naturaleko gehieneko epean utz daiteke lohia aplikatuko den partzelan. Meteorologiak eragozten badu lohiak adierazitako epean hedatzea eta nahastea, ezin izango da gune berean 200 tona (edo 8 kamioi) baino gehiago metatu. Lohia metatzeko gune horiek 2 km baino urrunago egon beharko dute biztanleguneetatik eta 100 metro baino urrunago hornidura-sistemetatik, ibaietatik, euri-bideetatik, erreketatik edo ur-eroanbideetatik. Lohia adierazitako epean hedatzea eragozten duten muturreko baldintza meteorologikoen kasuan besterik ez, lohia gehienez ere hilabetez (1) egon ahal izango da gune berean, baldin eta adjudikaziodunak argi eta garbi eta modu fede-emailean frogatzen badu ezinezkoa dela metatutako lohia kentzeko lan egitea.

Aurrez xedatutakoaz haratago, ez da aintzat hartzen lohia aldi baterako uzteko gunerik.

AUSAko langileek edozein unetan izan beharko dute lohia aplikatzen den partzela guztietan sartzeko aukera, zerbitzua behar bezala garatzen dela egiaztatzeko.

Finka batean ongarritze-lanak lehen aldiz hasi aurretik, adjudikaziodunak txosten bat aurkeztu beharko dio AUSAri, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dituena:

- Finkaren kokapena: poligonoa/partzela, dagokion udal-mugartea eta UTM koordenatuak barne. Hurbilen dagoen hirigunerako distantzia eta partzelatik gertu dauden ur-ibilguak adieraziko dira.
- Ongarritu nahi den finkaren azalera.
- Ongarritzeko aurreikusitako dosifikazioak, hektareako lohi tonatan adieraziak.
- Lurzoruaren analisia, gutxienez 1310/1990 Errege Dekretuan ezarritako parametroak jasoko dituena, bertan definitutako analisi- eta laginketa-tekniken bidez lortuak.
- Laborantza mota.

- Lohia aplikatzeko metodologia.
- Ongarritzearen iraupen aurreikusia.
- Finkaren jabearekin egindako kontratua, non zehaztuko baita, gutxienez, ongarritze-programa egikaritzeko jabearen adostasuna.

Ez da onartuko AUSAk sortutako lohiak beste lohi batzuekin nahastea, ezta partzela berean beste lohi batzuk aplikatzea ere. Ahal den neurrian, finkak udalerri bakar batean kokatuko dira. AUSAko langileek beti izan beharko dute finketan sartzeko aukera, inguruaren ikuskapen bisualak egin ahal izateko.

Hamabost egunez behin, lohia aplikatu nahi zaien finken aurreikuspena igorri beharko da.

Gainera, lanak modu eraginkorrean kontrolatzeko, benetan egindakoa eta partzela bakoitzean aplikatutako lohi kantitateak eta jatorria jasoko dituen txostena igorriko da hilean behin.

Aplikazioa amaitu ondoren, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dituen txostena igorriko dio adjudikaziodunak AUSAri:

- Lurzoruaren konposizioaren analisia, ongarritzeak metal astunak sartzeari dagokionez izan ditzakeen gorabeherak aztertzeko. Analisi hori adjudikaziodunaren kontura izango da eta 1310/1990 Errege Dekretuak eta hori aldatzen duten aginduek ezarritakoaren arabera egingo da.
- Lohi kantitateak, utzi diren lohi tonatan adieraziak, eta haien jatorria, AUSAk izendatutako sorta-zenbakia adierazita.
- Aplikatutako benetako dosifikazioa, laborantza mota.
- Ongarritzean izandako gorabeherak.

8.4.3 Ongarri baten oinarri gisa baliaraztea

Lohiak merkatuan dauden ongarriak edo kidekoak erabiltzeko aplika daitezke. Landareei mantenugaiak emateko eginkizun nagusia duen produktu bat da.

Horri dagokionez, eta ongarriei buruzko ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, ulertzen da lohiak gutxienez ongarri organiko mineral gisa balio dezakeela, halakotzat hartzen baita landareei mantenugaiak —jatorri organiko eta mineralekoak— emateko eginkizun nagusia duen produktua; eta ongarri ez-organikoen eta animalia- edo landare-jatorriko material karbonodunen edo ongarri organikoen arteko nahaste edo konbinazio kimikoaren bidez lortzen da. 506/2013 Errege Dekretuaren I. eranskineko 3. taldean jasotzen da horien zerrenda.

Ondorio horietarako, fabrikatzaileak honako ezaugarri hauek zehaztu beharko ditu:

- Produktu motaren izendapena.
- Lortzeko modua eta funtsezko osagaiak.
- Mantenugaien gutxieneko edo gehieneko edukiak.
- Forma, disolbagarritasuna eta merkaturatu beharreko produktuek bete behar dituzten gainerako betekizunak.

- Deklaratu beharreko eta kontsumitzaileari bermatu beharreko nutrizio-aberastasuna.
- Produktua erabiltzeari, biltegiratzeari eta manipulatzeari buruzko jarraibide espezifikoak.

Era berean, fabrikatu beharreko ongarrien etiketatuari eta trazabilitateari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, eta oker aplikatzearen ondorio diren ez-betetzeak beren erantzukizunpekoak izango dira.

Trazabilitatea bermatu ahal izateko, produktuek gutxienez honako elementu hauek bermatu beharko dituzte:

- Produktuaren identitatea.
- Fabrikazioan dagokion partidaren edo sortaren zenbakia.
- Produktua egiten duen instalazioaren izena eta helbidea.
- Fabrikazioan erabilitako lehengaiak eta horien hornitzaileak.
- Merkatuan jartzearen arduraduna.

Gutxienez ongarrien eskabidea akreditatu beharko dute 506/2013 Errege Dekretuaren I. eranskineko 2., 3. eta 6. taldeetako batean, eta sei hilabeteko gehieneko epea izango dute inskribatzeko, eskabidea egiten denetik aurrera. Epe hori igaro eta inskripzioa lortu ez bada, kontratuaren adjudikaziodunak nekazaritza-lurzoruetan aplikatu beharko ditu lohiak edo beste hondakin-kudeatzaile baten esku utzi.

Akreditazio hori lortzen denean AUSAri entregatu beharko zaio, egin nahi den erabileraren egiaztagiri gisa.

8.4.4 Lohi lehorra biltegiratzeko gomendioak

8.4.2 atalean aipatu den moduan, gehienez ere hamabost egun naturalez egon daiteke lohia hedatu gabe, eta, salbuespen gisa, lohia adierazitako epean hedatzea eragozten duten muturreko baldintza meteorologikoen kasuan, lohia gehienez ere hilabetez (1) egon ahal izango da. Kasu horietan, honako gomendio hauek hartuko dira aintzat:

- Leku itxi eta lehorretan biltegiratzea, metro batetik beherako altuerako pilak eginda.
- Leku itxietan biltegiratzen bada, ongi aireztatzea.
- Leku itxietan biltegiratu ezin bada, lohia gainazal horizontal lehor eta ongi drainatu batean biltegiratzea, metro batetik beherako altuerako pilak eginda.
- Lohia lurzoruaren hezetasun, euri, ihintz eta abarretatik babestea, produktu higroskopikoa da-eta.
- Bero-iturrietatik urrun eduki.

9 Egindako zerbitzuak AUSAk kontrolatzea

Adjudikaziodunak zerbitzuaren ordezkari bat izendatuko du, eta hori izango da AUSArekiko solaskide baliodun bakarra.

Erretiratutako lohi kantitateak eta horien jatorria kontrolatzeko, adjudikaziodunak honako informazio hau eman beharko dio AUSAri, horrek zehazten duen moduan:

- Erretiratutako lohien masaren hilean behingo zerrenda. Zerrendak egindako erretiratze-zerbitzu bakoitzerako erregistratuko ditu ibilgailuaren matrikula, garraioaren data eta ordua eta lohiaren jatorria.

- Erretiratze-albaranak, honako hauek jasoko dituztenak: albaran-zenbakia, erretiratze-data eta -ordua, ibilgailuaren matrikula, gidariaren izena, jatorrizko instalazioa eta lohiaren xedea. AUSAk onartu beharko du albaranaren formatua.

- Pisatze-egiaztagiriak.

Halaber, arazketako lohiei emandako azken xedea kontrolatzeko, adjudikaziodunaren ordezkariak honako dokumentazio hau bidali beharko dio AUSAk izendatutako kontratuaren arduradunari:

- Ongarrien trazabilitatearen txostena, ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Ongarria fabrikatzeko lohi-oinarria erabiltzen duten ongarrien inskripzioaren indarreko ziurtagiria.

AUSAko arduradunak edozein unetan egin ahal izango ditu bisitak ongarria fabrikatzen ari diren fabriketara, fabrikazioa martxa onean doala egiaztatzeko. Adjudikaziodunak adierazi beharko dio ongarria non fabrikatzen den.

AUSAk bere esku gordetzen du lohien xedearen jarraipen eraginkorra egiteko bidezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazio adjudikaziodunari eskatzeko eskubidea.

10 Ingurumen-alderdiak

Lanen jarduketa-esparrua AUSAren barrutien barruan kokatzen denez, adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu ingurumen-arloan indarrean dagoen araudia eta AUSAk bere jarduketek sor ditzaketen ingurumen-inpaktuak minimizatzeko hartu duen ingurumen-politikaren ondorio dena, eta kontratatutako jarduera garatzen duten bere ardurapeko langile guztiei emango die politika horretan jasota dauden konpromisoen berri.

Kontratistak behar den dokumentazioa aurkeztuko du zerbitzua emango duten erantzukizun handieneko pertsonek lanpostuarekin lotutako ingurumen-gaietan esperientzia eta prestakuntza egokia dutela ziurtatzeko. Gainera, kontratuko lanak AUSArentzat egingo dituzten bere ardurapeko gainerako langileek eginkizunak behar bezala betetzeko behar diren ezagutzak izango dituztela ziurtatzeko konpromisoa hartzen du kontratistak.

Kontratistak konpromisoa hartzen du kontratuko lanak AUSArentzat egingo dituzten bere ardurapeko langile guztiei ingurumen-jardunbide egokien jarraibideak jakinarazteko.

Arau orokor gisa, hondakinak erretiratzen diren guztietan, beti zainduko dira garbitasuna, ordena eta segurtasuna.

11 Segurtasunari eta osasunari buruzko araudia betetzea

11.1 Betetzearen erantzukizuna

Adjudikazioduna izango da une bakoitzean indarrean dagoen araudi orokorrak lan-osasunari buruz ezartzen duen guztia betetzearen erantzulea, baita AUSAk enpresa-jardueren koordinazioari buruz ematen dituen jarraibide espezifikoak betetzearena ere, zerbitzuak emateko kontratuetarako laneko segurtasun eta osasunaren atalean. Adjudikaziodunak kontratuan esku hartzen duten pertsona guztiei eskatu beharko die araudi hori betetzeko. Kontratua sinatu ondorengo bost egun balioduneko epean, adjudikaziodunak prebentzio-arduradun bat izendatuko du, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean (azaroaren 8ko 31/1995 Legea) aurreikusitakoaren arabera; izendapen hori AUSAri jakinaraziko zaio.

Kontratua egikaritzen den bitartean adjudikaziodunak edo AUSAk jarduketan edozein aldaketa eginez gero, baldin eta kontratatutako lanen segurtasun-baldintzetan funtsezko aldakuntzaren bat badakar, idatziz jakinarazi beharko da behar diren neurriak hartzeko.

11.2 Koordinazioa

Enpresa adjudikaziodunak behar besteko prestakuntza duen laneko arriskuen prebentzioko arduradun bat izendatuko du AUSArekin behar bezala koordinatzeko.

Adjudikaziodunak ondoren adierazten den enpresa-jarduerak koordinatzeko dokumentazioa aurkeztuko du kontratua formalizatu ondoren, eta aldian behin eguneratuta mantenduko du bere lantokian, behar bezala sailkatuta AUSAren eta lan-agintaritzaren eskueran, horiek egiazta dezaten adjudikaziodunak betebeharrak behar bezala egikaritzen dituela kontratuaren garapenean:

- Prebentzio-plana.
- Langileen zerrenda eta aurreko hileko TC2 eredua.
- Kontratuaren xede diren arriskuen ebaluazioa.
- Prebentzio-jardueraren plangintza.
- Langileen gaitasun medikoaren zerrenda.
- Langileen prestakuntzaren akreditazioa.
- Arriskuen ebaluazioaren eta langileentzako prebentzio-neurrien informazioa.
- Arriskuen ebaluazioaren eta azpikontratistentzako eta langile autonomoentzako prebentzio-neurrien informazioa.
- Ziurtagiriak, mantentze-lanen liburuak, makineriaren “CE marka”.

AUSAk egokitzat jotzen duen informazio gehigarri guztia eskatu ahal izango du.

Enpresaburu adjudikaziodunak enpresa-jarduerak koordinatuko ditu azpikontratista eta langile autonomo guztiekin, eta lanen berezko arriskuen eta erabili behar diren

prebentzio-neurrien berri emango du, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikulua enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuari jarraikiz.

11.3 Segurtasun- eta osasun-ekipamenduak

Jarduerak garatzeko erabiltzen diren norbera babesteko ekipamendu eta babes kolektiboko ekipamendu guztiek egin beharreko lanetarako ziurtatuta egon beharko dute, eta edozein jarduera hasi aurretik eman beharko dizkie adjudikaziodunak bere langileei.

11.4 Lan-istripuetako erantzukizuna

Lan-istripurik izanez gero, enpresa kontratista bera izango da istripuak eragindako gastuen erantzule bakarra, eta adjudikaziodunak egin beharko dio aurre horren ondorioz aurkez litekeen edozein erreklamaziori. AUSAri gertakarien txosten xehatua igorri beharko zaio, hartu beharreko neurri zuzentzaileak eta horretarako epeak adierazita.

Istripu bat gertatzen den bakoitzean, adjudikaziodunak horren berri eman beharko dio AUSAk izendatutako kontratuaren arduradunari.

Istripuen ikerketan, kontratistak ahal duen laguntza guztia eman behar du prozesuan, eta eskatzen dizkioten datu guztiak eman eta kudeaketa guztiak egin.

11.5 Azterketa medikoak eta txertaketak

Zerbitzuko langile guztiei azterketa medikoa egingo zaie, gutxienez urtean behin, adjudikaziodunaren kontura.

Prebentzioaren alorrean, Loiolako HUAn lan egiten duten langileentzako txertaketa guztiak egitea bultzatu beharko da, lanpostuaren arriskuei buruz ezarritako protokoloen arabera.

11.6 Laneko arriskuen prebentziorako plana

Adjudikaziodunak, kontratua indarrean dagoen artean, eguneratuta mantendu beharko du laneko arriskuen prebentziorako plana.

11.7 Prestakuntza-plana

Adjudikazioduna arduratuko da zerbitzuari atxikitako langile guztiei prestakuntza- eta informazio-plana emateaz, laneko segurtasun eta osasunari, lan-metodoei eta abarri dagokienez. Adjudikaziodunak dagokion plana igorriko dio AUSAri, kontratua sinatu eta gehienez hilabeteko epean, haren berri izan eta gainbegiratu dezan.

11.8 Uniformetasuna

Kudeaketa-zerbitzuari lotutako adjudikaziodunaren langile guztiek behar bezala uniformatuta eta identifikatuta jardun beharko dute.

11.9 Seinaleak

Adjudikaziodunak, zerbitzuaren lehen hilabetean, segurtasun eta osasuneko seinale guztiak berrikusi, egokitu eta eguneratu beharko ditu.

1. eranskina

Loiolako HUAn sortutako lohiak (t)
(2011-2020)

Urtea	**Termikoki lehortuak** (% 90/92 ML)	**Deshidratatuak** (% 20/28 ML)	**Guztira**
2011	3.959	867	4.826
2012	4.413	---	4.413
2013	4.155	---	4.155
2014	4.447	---	4.447
2015	4.599	---	4.599
2016	4.323	---	4.323
2017	3.855	---	3.855
2018	4.119	---	4.119
2019	4.789	---	4.789
2020	5.460	---	5.460

2. eranskina

Termikoki lehortutako lohiaren analisia

eurofins

Agro

Informe analítico

Código de muestra	**326-2020-00011941**	**Fecha**	**21/01/2021**	**Página 1/3**
Número de informe analítico	**AR-21-XK-002383-01 / 326-2020-00011941**			

AGUAS DEL AÑARBE, S.A.

A la atención de **Javier Vicente Lanchas**
Paseo Errotaburu 1, 6ª planta
20018 Donostia
ESPAÑA

Contacto para servicio al cliente :

Nuestra referencia :	326-2020-00011941 / AR-21-XK-002383-01	**Tipo :**	EX
Descripción de la muestra	Lodo residual		
Fecha de recepción :	18/12/2020		
Fecha de inicio del análisis :	21/12/2020	**Fecha de finalización del análisis :**	21/01/2021
		Referencia del pedido :	SAE20593
T.muestra/Transporte :	Courier		

La información que figura en el cuadro inferior, ha sido aportada por el cliente y el laboratorio no es responsable de la misma.

Descripción por el cliente	LODO SECO

Propiedades básicas		Resultados	
XK05V	**XK Materia seca 105ºC Método : C5110015 Gravimetría**		
	Materia Seca	86.6	%
XK05W	**XK Humedad a 105ºC Método : C5110015 Gravimetría**		
	Humedad	13.4	%
XK05Y	**XK pH (extracto 1:5 H2O) Método : C5110114 Potenciometría**		
	pH	7.4	
XK06B	**XK Conductividad eléctrica a 25ºC (extracto 1:5) Método : C5110229 Conductimetría**		
	Conductividad eléctrica 25 °C	5.41	dS/m

Materia organica		Resultados	
XK06F	**XK Materia orgánica Método : C5110115 Calcinación**		
	Materia orgánica (550ºC)	54.9	%
XK0A4	**XK Carbono orgánico Método : Método Interno - Cálculo**		
(*)	Carbon organico	31.8	%

Relaciones de interes		Resultados	
XK0A7	**XK Relación Carbono/Nitrógeno Método : Método Interno - Cálculo**		
(*)	Relación C/N	8.26	

Acidos Húmicos Y Fulvicos		Resultados	
XK0E9	**XK Extr. Húmico total, Ácido Húmico y Ácido. Fúlvico Método : Método Interno Titulometría**		
(*)	Ácido Húmico	3.9	%
(*)	Extracto Húmico Total	12.7	%
(*)	Ácido Fúlvico	8.7	%

Análisis Químico		Resultados	
XK06M	**XK Nitrógeno Total (N) Método : Método Interno Titulometría**		
(*)	Nitrogeno total	4.87	%
XK06U	**XK Nitrógeno ureico (N) Método : Método Interno Titulometría**		
(*)	Nitrógeno Ureico (N)	<0.1	%
XK06P	**XK Nitrógeno orgánico (N) Método : Método Interno - Cálculo**		
(*)	Nitrógeno orgánico (N)	3.85	%
XK06R	**XK Nitrógeno amoniacal (N) Método : Método Interno Titulometría**		
(*)	Nitrógeno Amoniacal (N)	1.02	%
XK06W	**XK Nitrógeno Nítrico (N) Método : Método Interno Cromatografía Iónica**		
(*)	Nitrógeno nitrico	<0.001	%
XK07G	**XK Fósforo (P2O5) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Fósforo (P2O5)	4.60	%

Agro
partida setsambs, s/N
25222 sidamon
ESPAÑA

Teléfono +34 973 717 000
Fax +34 973 717 033
agroambiental@eurofins.com
www.eurofins.es

Eurofins Agroambiental SA, ESA25244849

ENAC ENSAYOS Nº 563/LE1047 Nº 563/LE2082

(*) Los ensayos y actividades marcados no están amparados por la acreditación ENAC.

Código de muestra 326-2020-00011941 **Fecha** 21/01/2021 **Página 2/3**

Número de informe analítico AR-21-XK-002383-01 / 326-2020-00011941

Análisis Químico		Resultados	
XK07I	**XK Fósforo (P2O5) (soluble en agua y citrato) Método : Método interno gravimetría**		
(*)	Fósforo (P2O5)	3.47	%
XK07H	**XK Fósforo (P2O5) (soluble en agua) Método : Método interno gravimetría**		
(*)	Fósforo (P2O5)	<0.3	%
XK07L	**XK Potasi (K2O) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Potasio (K2O)	0.24	%
XK07M	**XK Potasio (K2O) (soluble en agua) Método : Método Interno ICP-OES**		
(*)	Potasio (K2O)	0.05	%
XK07Q	**XK Calcio (CaO) (extracto ácido) Método : Método Interno ICP-OES**		
	Calcio (CaO)	3.47	%
XK07R	**XK Calcio (CaO) (soluble en agua) Método : Método Interno ICP-OES**		
(*)	Calcio (CaO)	0.01	%
XK07V	**XK Magnesio (MgO) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Magnesio (MgO)	0.80	%
XK07X	**XK Magnesio (MgO) (soluble en agua) Método : Método Interno ICP-OES**		
(*)	Magnesio (MgO)	<0.01	%
XK0EG	**XK Sodio (Na2O) (extracto ácido) Método : Método Interno ICP-OES**		
(*)	Sodio (Na2O)	0.4368	%
XK08A	**XK Sodio (Na) (soluble en agua) Método : Método Interno ICP-OES**		
(*)	Sodio (Na)	0.301	% s.m.s.
XK0HQ	**XK Sodio soluble en agua (NaO2) Método : Método Interno ICP-OES**		
(*)	Sodio (Na2O)	0.35	%
XK08B	**XK Azufre (S) (extracto ácido) Método : Método Interno ICP-OES**		
(*)	Azufre (S)	2.68	% s.m.s.
XK08D	**XK Azufre (SO3) (extracto ácido) Método : Método Interno ICP-OES**		
(*)	Azufre (SO3)	5.79	%
XK0IA	**XK Azufre soluble en agua (SO3) Método : Método Interno ICP-OES**		
(*)	Azufre (SO3)	0.43	%
XK08G	**XK Hierro (Fe) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Hierro (Fe)	3.1	%
XK08I	**XK Cadmio (Cd) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Cadmio sms	0.67	mg/Kg s.m.s.
XK08K	**XK Cobre (Cu) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Cobre (Cu)	206	mg/Kg s.m.s.
XK08M	**XK Cromo (Cr) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Cromo sms	115	mg/Kg s.m.s.
XK08P	**XK Cromo hexavalente (VI) Método : Método Interno Espectrometriía UV-VIS**		
(*)	Cromo (VI)	<0.5	mg/Kg s.m.s.
XK08R	**XK Mercurio (Hg) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Mercurio (Hg)	0.92	mg/Kg s.m.s.
XK08T	**XK Niquel (Ni) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Níquel (Ni)	24.4	mg/Kg s.m.s.
XK08V	**XK Plomo (Pb) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Plomo (Pb)	75.4	mg/Kg s.m.s.
XK08X	**XK Zinc (Zn) (extracto ácido) Método : C5110228 Espectrometria ICP-OES**		
	Zinc (Zn)	733	mg/Kg s.m.s.

Propiedades físicas		Resultados	
XK0AJ	**XK Densidad aparente Método : Método interno gravimetría**		
(*)	Densidad Aparente	868	kg/m³
XK09V	**XK Impurezas Método : Método interno gravimetría**		
(*)	Cristales > 2 mm	<0.1	% s.m.s.
(*)	Metales > 2 mm	<0.1	% s.m.s.
(*)	Metales+Cristales+Plásticos > 2mm	<0.1	% s.m.s.
(*)	Piedras > 5 mm	<0.1	% s.m.s.
(*)	Plásticos > 2 mm	<0.1	% s.m.s.
XK09W	**XK Fracción D < 25 mm Método : Método interno gravimetría**		
(*)	Fracción < 25 mm	100.00	%
XK09Z	**XK Fracción D < 10mm Método : Método interno gravimetría**		
(*)	Fracción < 10 mm	100.00	%

Análisis Microbiológico	Resultados

Agro
partida setsambs, s/N
25222 sidamon
ESPAÑA

Teléfono +34 973 717 000
Fax +34 973 717 033
agroambiental@eurofins.com
www.eurofins.es

Eurofins Agroambiental SA, ESA25244849

ENAC
ENSAYOS
Nº 563/LE1047 Nº 563/LE2082

(*) Los ensayos y actividades marcados no están amparados por la acreditación ENAC.


Código de muestra	**326-2020-00011941**	**Fecha**	**21/01/2021**	**Página 3/3**
Número de informe analítico	**AR-21-XK-002383-01 / 326-2020-00011941**			

Análisis Microbiológico		Resultados	
UM5AT	**NG Salmonella (compost) Método : AFNOR BRD 07/11-12/05 mod.**		
(*)	Salmonella especies	No detectado	/25 g
UMD4B	**NG Escherichia coli Método : ISO 7251-M**		
(*)	Escherichia coli	< 3	NMP/g

Otras Determinaciones		Resultados	
XK0AB	**XK Cloruros Método : Método Interno Cromatografía Iónica**		
(*)	Cloruros	5112.16	mg/kg

x<10 mm = 100%
x>5 mm = 0.56%
3<x<4 mm = 59.51%
2<x<3 mm = 23.68%
1<x<2 mm = 1.24%
0.5<x<1 mm = <0.1%
x<0.5 mm = <0.1%

FIRMA



Anna Carbo
Técnico de Laboratorio

Química validado por Anna Carbo

Informe validado electrónicamente por : Anna Carbo

NOTA ACLARATORIA

Este documento sólo puede ser reproducido en su totalidad y sólo da fe de la muestra analizada.
Los resultados se han realizado e informado de acuerdo con nuestros términos y condiciones generales de venta disponibles bajo petición.
Cuando se declara conformidad o no conformidad, la incertidumbre asociada con el resultado se ha añadido o eliminado para obtener un resultado que pueda ser comparado con los límites reglamentarios o especificaciones. La incertidumbre no se ha tenido en cuenta para los estandar que ya incluyen incertidumbre en la medida.
Los tests se identifican con un código de cinco dígitos cuya descripción está disponible bajo petición.
NE: El término “número estimado” significa una estimación menos precisa del valor verdadero cuando los recuentos en placa son inferiores a 10 colonias.

Los tests indentificados con las dos letras del código XK se realizan en el laboratorio Eurofins Agroambiental.
Los tests identificados con el código de dos letras NG son realizados en el laboratorio Eurofins Analisis Alimentario Nordeste SL.

Agro
partida setsambs, s/N
25222 sidamon
ESPAÑA

Teléfono +34 973 717 000
Fax +34 973 717 033

agroambiental@eurofins.com

www.eurofins.es

Eurofins Agroambiental SA, ESA25244849

ENAC
ENSAYOS
Nº 563/LE1047 Nº 563/LE2082

(*) Los ensayos y actividades marcados no están amparados por la acreditación ENAC.